



Oñatiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana

2021-2026



OÑATI
dabilen herria



Aurkezpena

Oñatiko Udalak ibilbide bat eginga du emakumeen eta gizonen berdintasunaren eremuan, azken urteetan egonkortu dena.

Berdintasunerako I. Planaren indarraldia bukatuta, Berdintasun Sailak geldialdia egiteko une egokia zela baloratu zuen, orain arte egindako lanaren eta egungo egoeraren balantzea egin zen, eta ateratako ikaspen eta ondorioekin Berdintasunerako II. Plana diseinatu dugu.

Oñatiko Emakumeen eta Gizonen
Berdintasunerako II. Plana

Proiektu hau Elhuyarren laguntza teknikoarekin garatu da

elhuyar

Plana diseinatzeko prozesua

Aurreianak

Prozesuaren nondik norakoak zehaztu genituen, eta prozesuaren berri eman genuen.

Entzute-fasea

Udalean azken urteetan berdintasunaren bidean egin den lanaren bilketa egin genuen, udal-langileen zein herriko zenbait emakumeren iritziak bilduz.

Eraikitze-fasea

Emakunderen VII. Plana oinarri hartuta, eta jasotako informazio guztia aintzat hartuta Oñatiko II. Plana diseinatu genuen.

Kontraste-fasea

Plana Emakumion Kontseiluarekin eta Berdintasun Batzorde politikoarekin kontrastatu genuen.

Sozializazio-fasea

Behin Plana onartuta, herritarrei egindako lanaren berri emateko lanak abiatu genituen.



Planaren printzipio gidariak

Paradigma feminista

Teoria eta mugimendu feministak eraldaketa sozialerako ekarpen handia egiten ari den une honetan, agenda feminista aintzat hartzean datza.

Aukera- berdintasuna


Emakumeek eta gizonek eskubide politikoak, zibilak, ekonomikoak, sozialak, kulturalak, era berean baliatzen dituztela bermatu beharko da.

Intersekzionalitatea

Desberdintasunei heltzeko ikuspegi gisa, kontuan hartzen du generoak beste diskriminazio faktoreekin (arraza, klase soziala, desgaitasun-maila, adina, hizkuntza, orientazio-sexuala, identitatea, familia-eredua eta inguruabar pertsonal eta sozialak) duen aldibereko erlazioa.

Genero-ikuspegia

Eraikiko dugun agendak sistematikoki izango ditu kontuan gizonak eta emakumeak dituzten behar eta interes ezberdinak.



Desberdintasunak murriztea

Gizarteko esparru eta sektore guztietan generoagatik edo bestelako zapalkuntzengatik eratortzen diren desberdintasunak aintzat hartu eta murrizteko politika aktiboak inplementatzean datza.

Emakumeen ahalduntzea

Emakumeen ahalduntzea helburua, tresna eta prozesua ere bada; eta modu integralean hartu behar da aintzat ahalduntze pertsonala, kolektiboa, soziala eta politikoa.

Giza garapen iraunkorra

Agenda 2030: Giza garapen osoak, jasangarria izan dadin eta egiturazko aldaketak bultzatuz, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta genero-ikuspegia txertatu behar ditu gizarte, ekonomia eta ingurumen politiketan.

Emakume-elkarteek, mugimendu feministak, zein eragile ekonomiko eta sozialek ere politiken garapenean parte-hartzea.

Politika gardena izatea eta herritarrei kontuak ematea

Esku-hartze publikoaren bidez berdintasunean nola eragiten ari den jakinarazteko.



Planaren bermeak

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako konpromiso politikoa

Planean inplikaturako erakundeak eta sailak erantzunkideak izatea

Beharrezko baliabideak berdintasuneko politika publikoen esku jartzea

Planaren esku- hartze ardatzak

1. ardatza:

**Berdintasunerako
governantza**

2. ardatza:

**Zaintza-lanen
ekonomia feminista**

3. ardatza:

**Emakumeen
ahalduntzea**

4. ardatza:

**Gizarte- eta ekonomia-
eraldatzailea**

5. ardatza:

**Indarkeria matxistarik
gabeko bizitzak**

1. ardatza BERDINTASUNERAKO GOBERNANTZA

ZER LANDUKO DUGU?

Oñatiko Udalak hurrengo urteetan izango duen erronka nagusienetakoa izango da: genero-berdintasuna udaleko sail eta jarduera guztietara hedatzea.

Hori dela eta, ardatz honetan planteatu dira ekintza gehien; ardatz honek 4 helburu estrategiko, 14 helburu operatibo eta 31 ekintza ditu.

08





Lanketa nagusiak

- Udal-politikan genero-ikuspegia txertatzeko trebakuntza udal-teknikari zein politikariei.
- Lan-prozeduretan genero-ikuspegia txertatzea.
- berdintasunerako koordinazioa eta elkarlana bermatzea.
- Udalaren lan arloko barne-mailako politikan berdintasun-ikuspegia txertatzea.

2. ardatza

ZAINZA-LANEN EKONOMIA FEMINISTA

ZER LANDUKO DUGU?

Oñatiko Udalak hurrengo urteetan izango beste erronka handia zaintza eta bizitza jasangarriak erdingunean jartzen dituen eredu ekonomiko eta soziala sustatzea izango da. Horretarako lehen urratsa izango da, etxeetan zein etxeetatik kanpo egiten diren zaintza-jarduerak sozialki eta ekonomikoki aitortzea. Horrekin batera zaintza-eredua birpentsatu eta eredu justu eta erantzunkide baterantz igarotzeko baldintzak landuko dira hurrengo urteetan.

Ardatz honek 3 helburu estrategiko, 9 helburu operatibo eta 21 ekintza ditu.





Lanketa nagusiak

- Zaintza-eredua birpentsatzea eta zaintza-eredu justu eta erantzunkide baterantz igarotzeko baldintzak sortzea.
- Zaintzaren erantzunkidetasuna sustatzea.
- Zaintza-lanetan diharduten emakumeen bizi-eta lan- baldintzak duintzeko programak martxan jartzea.

3. ardatza EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

ZER LANDUKO DUGU?

Ahalduntzearen esparruan urrats nabarmenak eman ditu Oñatiko Udalak azken urteetan. Datozen urteetan egindakoa finkatu eta egonkortzeko erronka izango du Udalak, interseksionalitatea ardatz hartuta, bere lana zabaldu eta Oñatiko aniztasuna aintzat hartuta lan egitearekin batera.

Ardatz honek 2 helburu estrategiko, 4 helburu operatibo eta 15 ekintza ditu.





Lanketa nagusiak

- Emakumeen ahalduntze pertsonal, kolektibo, sozial eta politikorako espazioak garatzea ikuspegi interseksionala ardatz
- Mugimendu feministaren eta emakumeen antolakuntza-gaitasunak eta eragin politikoa indartzeko esku-hartzeak martxan jartzea
- Gizarte- eta komunitate-sarea indartzea genero-ikuspegitik.
- Oñatiko emakumeek udal politika publikoetan eragiteko bideetan sakontzea

4. ardatza EKONOMIA- ETA GIZARTE- ERALDATZAILEA

ZER LANDUKO DUGU?

Arreta berezia jarriko da enplegua bilatzeari eta ekintzailetzari laguntzeko lan-merkatuan dauden genero-joerak antzeman eta gainditzeari, emakume kolektibo zaurgarrienei arreta berezia eskainiz, emakumeen behar berehalakoei (behar praktikoak) eta dituzten epe-ertain, -luzeko interesei erantzun integralak eskaini ahal izateko.

14

Ardatz honek 2 helburu estrategiko, 5 helburu operatibo eta 11 ekintza ditu.





Lanketa nagusiak

- Diskurtso feminista herritarren artean zabaltzeko ekimenak garatzea, berdintasunaren aldeko gizarte eredu bateranzko oinarri gisa.
- Ekonomia sozial eraldatzailearen aldeko ekimenak babestea.
- Oñati herri-hezkidetzalea egitasmoa sendotzea
- Emakumeen lan-baldintza duinak sustatzea.
- Pobreziaren feminizazioa murrizten laguntzeko programak garatzea.


5. ardatza INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK

ZER LANDUKO DUGU?

Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak lortzeko orain arteko esku-hartzeak finkatu eta sistematizatuko ditu Oñatiko Udalak.

Prebentzioaren arloan arreta jartzen jarraituko du Udalak. Horrekin batera, indarkeria matxista jasan dutenen erreparazioa bermatzea izango da erronka. Emakumea subjektu aktiboa izango duen arreta integrala eskaintzeko gogoetari eta praktika eraldatzaileak diseinatzeari bide emanaz.

Ardatz honek 2 helburu estrategiko, 6 helburu operatibo eta 16 ekintza ditu.





Lanketa nagusiak

- Indarkeria matxistaren prebentziorako bitartekoak eta kanpainak bideratzea.
- Indarkeria matxista jasan duten emakumeen leheneratze integrala (juridiko, ekonomikoa, osasun-arlokoa...) bermatzea, ahalduntzearen ikuspegitik
- Ahalduntze prozesu kolektiboak bideratzea
- Indarkeria matxista jasaten duten emakumeen arreta integralerako instituzio arteko koordinazioa hobetzea
- Indarkeria matxistaren prebentzio, detekzio, arreta eta erreparazio integralerako, herriko eragileen inplikazioa eta jarrera aktiboa sustatzea

Oñatiko Berdintasun Saila



Kokapena

Udaletxea. Foruen enparantza, 1. 20560 Oñati

Ordutegia: astelehenetik ostiralera, goizez 09:00etik 14:00etara

Harremanetarako telefonoa

943 78 04 11 . Oñatitik egindako deiak 010 (doakoa)

Posta elektronikoko helbidea

berdintasuna@onati.eus